

EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXX

SAN SEBASTIÁN 15 DE JUNIO DE 1914

N.º 1106

ADRIAN LOYARTE JAUNARI OROIPEN GOGOTSUA

Ez ditugu beti, ildako jaun leñargien izenakin orri abek osatu biar. Biziyak ere aitatu biar ditugu. Eta ez gogo guchiyagorekin, euskera ta euskal oituren zale bizikuak diranian.

Abetako bat, gaur azaltzen degun Adrian Loyarte jauna da; Euskal itz-jostaldien Batzarreko lagun zintzo ta pizkorrenetakua; idazlari bikain, trebe, azkarra.

Gaztetandikan, umetandikan obetuago esateko, Euskal-erria-ren ganaka gogo bizikua izan da, ta gogo bizi, sendo, sutsu au, erakutsi zuben galanki, lenengo bere idatz-lanetan: «Pinceladas de Vasconia» izendatutako ipui banen baneko ayek argitaratu zitubenia.

Geroztik gelditu ez dala bere bidian, esan genezake orain, baita-re pizkorki jarraitu diola asitako lanari. Eta ez bakarrik bere idazki ederakin, baizik, gañera, bere itz bero, apain, egoki, sutsuakin, egin ditu alegiñak gure lege, gure oitura, gure izkuntza maitagarrien alde. Ondo erakutsiya bai dauka idazlari azkar eta yayua bada, ez dala iztun motelago ta kamutsagua. Ez dago oroitu besterik Ernani-n ta Azkoitiya-n, euskal-jayak izan ziranian, egin zituben itsaldi gain gañekuak.

Itsaldi ayekin, ta beste zenbait lan egoki, jator eta apañekin, antolatu zuben geruago «Ideas de mi tiempo» izentzat duben liburu ederra. Erritarrak eta kanpotarrak batian, goitu dute biar bezela liburu-choura.

Albistarietan ere egin ditu sayo ugariyak, eta ala errikuetan, nola kanpuan diran otsaundikuenetan, Loyarte-ren lan egokiyak agertu dira maiz, eta beti esagutu dituzte onenchuentzat orain diran gizon jakintsuenak.

Azkenik, orain dala illabete guchi argitaratu du bere liburu «Donostiarras. del siglo XIX», eta liburu atsegin onen orrietan, esagutu asitzen dizkigu, antzezta egiazko batian bezela, košketa-ko erri alaiyan, juañ dan eunkidan izan diran gizon trebienak, azkarrenak, bulartsuenak eta burutsuenak.

Gañera asaltzen ditu egipen gogoangarrienak, oitura zarrak ere ikusten dira ziran bezela; batian esateko juañ dan gisaldia erakusten du jator eta garbi, bere gora-bera guziakin.

Chalo bero, ugariyak, eskeñi diozkate alde guzietatik liburu gain gañeko au esagutu dutenian; danen iritsian ez da azpaldiyan argitaratu Donostiya-ri dagokiyon gauzetan, liburu ori bezelakorik. Ala diote guziyak eta egiya diyote.

Orlako lan azkarra, ezin sari-rik gabe gelditu zitekien, ta egillea saritu dute; bazan ordu sarituba izateko, ondo irabaziya dauka.

Ala, eman diote otsaundiko gurutze bat, eta gañera aukeratu dute Kondairako batzar buruben lagun erazkoz.

Zorionak ugari eman dizkiote sarituba izan dalako ta ez gera izan-go azkenekuak eta epelenak gure posa asaltzeko lagun atsegiñari.

Orra zergatik oroipen samur, gogotsu au donkitzen diogun.

Eta oroipenakin batian, besarkada bat biyotz biyotzetik.

EUSKAL-ERRIA

